

2008KO URTARRILAK 31

31 DE ENERO DE 2008

ORGANOA: UDAL BATZARRA

ORGANO: AYUNTAMIENTO PLENO

BATZARRALDIA: OHIZKOA

SESION: ORDINARIA

TOKIA: UDALETXEKO OSOKO BILKUREN ARETOA

LUGAR: SALON DE PLENOS DE LA CASA CONSISTORIAL

EGUNA: 2008KO URTARRILAK 31

DIA:31 DE ENERO DE 2.008

HASIERA ORDUA: 19:00

HORA DE COMIENZO: 19:00

LEHENDAKARIA: Iñaki AGIRREZABALAGA ALKORTA.

PRESIDE

ZINEGOTZIAK: BERTARATUTAKOAK

CONCEJALES: ASISTEN

Maria Eugenia ARRIZABALAGA OLAIZOLA
Manuel ZUBIA ARTABE
Andoni ETXANIZ OSA
Miren Nerea EPELDE AZKUE
Joseba Josu AZPIAZU AZKARRAGA
Xabier OLAIZOLA ANTIA

EZ DIRENAK BERTARATU:

NO ASISTEN:

Lide AMILIBIA BERGARETXE
Unai MANZISIDOR ANDONEGI
Pilar ETXABE IRIONDO
Cristina FORCADA UNANUE.
Emiliano CABAÑAS GONZALEZ
Paloma HEREDERO NEGREDO

IDAZKARIA: Miren ETXEZARRETA GARMENDIA
SECRETARIO

Herritarrak agertu dira.

Asiste público.

Alkate jaunak bilera eratutzat
ematen du.

Se da por constituida la
sesión por el Alcalde-Presidente.

1.- AURREKO BILERAKO AKTAREN ONARPENA, BIDEZKO
BADA:2007.12.27

APROBACION DE ACTA DE LA SESION ANTERIOR SI
PROCEDE:27-12-2007.

ALKATE-LEHENDAKARIA: Arratsaldeon. Ohizko den legez, gaur plenoa hasiko dugu.

Nik hala eta guztiz ere hasi aurretik - ikusten duzue gai askorik ez dagoela – adierazi, egia dela erabakia hartu genuela bere garaian, plenoaren maiztasunaz eta hartu genuen erabakia hilean azkenengo ostegunetan egiteko. Jakina da, gai handirik hil honetarako ez dela egon eta orduan galdera da, denok ados baldin bagaude gai asko ez daudenean nahiz eta erabaki hori hartu genuen, laga datorren hilabeterako eta hil horretan ez egin. Denok konforme baldin bagaude, nik uste dut erabaki hori hartu daitekeela hemen eta ulertu litekeela, erabaki hori zentzu horretan hartzea.

M. EUGENIA ARRIZABALAGA ANDREA: Guk alkatetza geneukanean, noiz edo noiz hartu izan genuen horrelako erabakirik eta hori Alkateak hartu beharreko edo erabaki beharreko kontua da eta guk ez daukagu horren kontra ezer.

ALKATE-LEHENDAKARIA: Ados. Horrela ulertzen dugu hurrengorako. Hori esan da, aurreko bilerako aktaren onarpena, bidezko baldin bada, Maria Eugenia.

M. EUGENIA ARRIZABALAGA ANDREA: Nik Idazkariari e-mail-ez artxiboa pasa nion, neure interbentzioetan hitzak aldatu gabe, baina bai komak eta puntuazio ikurrak eta... ez dakit ontzat hartuko den hala ez, baina espero dut baietz.

IDAZKARIA: Bai, nik M. Eugeniari erantzun niona izan zen, banatu genizuen aktan, jatorrizko akta horrek zuzenketarik ez dauka, baina berak bidalitakoa puntuazio ikurren zuzenketekin, koma horiek edo aldaketa horiekin, onartzeko ez dagoela inongo eragozpenik.

ALKATE –LEHENDAKARIA: Konforme.

ERABAKI ZATIA

PARTE RESOLUTIVA

Aho batez,
ERABAKI DA:

Por unanimidad,
SE ACUERDA:

2007-12-27ko Udal Batza
Osoko bilkurako akta onartzea.

Aprobar el acta de la sesion
Plenaria de fecha 27-12-2007.

2.- MOZIOA: IGOR PORTU ETA MATTIN SARASOLA.

2.- MOCION: IGOR PORTU Y MATTIN SARASOLA.

ALKATE-LEHENDAKARIA: Bigarrenko puntua, ANV-ek aurkeztutako mozioa, Igor Portu eta Mattin Sarasolaren inguruan, Andoni edo Nerea.

ANDONI ETXANIZ OSA JNA: Nahiko luzea bada eta agian aurrekari denak irakurri beharrean, mozioa bera irakurtzen baldin badugu, nik uste dut, bertan garbi agertzen dela, agertu beharrekoa eta irakurtzera noa.

Mozioa irakurtzen hasi aurretik, gaia kokatzea ere komenigarria izango litzateke.

Urte honen hasieran zoritxarrez, Igor Portu eta Mattin Sarasolaren inguruko, notizi grabeak izan ditugu komunikabideetan, bolo-bolo. Gaur egun jada ez daude komunikabideetan eta kasu honek zer segimendu edo zer nolako gorabeherak eduki dituen badirudi galdu dela komunikabideetan. Eta beste inongo erreperkutsio penalik edo depuraziorik egingo ote den, nik behintzat konfidantza gutxi daukat.

Zoritxarrez enteratu behar izan ginan, filtrazio bat medio. Mediki batek, filtratu zuelako txosten mediku bat zer egoeretan sartu zen Igor Portu

ospitalean, oso egoera larrian, oso egoera kaxkarrean, poliziaren esku geratu ondoren jasaniko tratatu txar, torturaren ondotik izandako golpe eta izandako urradurengatikan eraman egin behar izan zuten. Ordutik hona ikusi ditugun agerraldiak guri behintzat penagarriak eta larriak iruditzen zaizkigu. Bonok eginiko konfirmazioak, aste honetan Nafarroako Gobernuak hartu duen erabakia Amnistia Internazionaleko redaktoreari, urtero egiten duen legez, hango Parlamentuari erakusten die beroien txostena eta aurten betatu egin diote, eta zoritxarrez, hemen horrelako kasuak gertatzen direnean, Estatuaren mekanismoak martxan jartzen dira, horrelako gauzak estaltzeko eta pentsatzen dugu Euskal Herritik behintzat erantzun garbia, gardena eman behar dugula, torturarekin bukatu behar dela eta horretarako edo asmo horrekin mozio hau aurkezten dugu.

1. Udal honek irmoki salatzen ditu igor Portuk eta Mattin Sarasolak Guardia Zibliaren esku jasan dituzten Tortura latzak, baita azken urte luzeetan pilatu diren milaka tortura kasuak ere.

2. Udal honek argi agertu eta salatu nahi ditu Tortura kasu honen atzean dauden ardura guztiak: tortura erabiltzen duten espainiar polizi indarrak, torturak agindu edota baimentzen duen espainiar Gobemua, inpunitate osoa eskaintzen dion Justizia aparatua, baita Tortura kasu hau isilarazten edo justifikatzen saiatu diren alderdi politiko zein komunikabideak ere.

3. Udal honek, euskal herritarrek espainiar polizi indarren eskuetan jasaten duten Torturarekin amaitu asmoz honakoa nabarmendu nahi du: euskal herritarrek torturatzen dituzten espainiar polizia indarrek zein inpunitatea bermatzen duen. espainiar Justizia aparatua ez dute Euskal Herrian inolako zilegitasunik. Hortaz, hauei babesagertzea Tortura ahalbidetzea besterik ekartzen ez duenez, eragile politiko, sozial zein sindikalei babesik ez ematea eskatzen diegu eta behingoz Torturarekin amaitzeko jarrera argia eta beharrezko neurriak har ditzatela.

4. Udal honek bereziki salatu nahi du PSOE alderdiak osatzen duen espainiar Gobemua Tortura kasu honi dagokionean agertu duen jarrera, Rubalcaba Bame Ministroa zein Zapatero Presidenteak gezurretan aritu dira Tortura hauek estali nahian, Guardia Zibilar erabateko babesagertu eta inpunitatea bermatua izango dela agindu dute.

5. Udal honek bat egiten du euskal herritarren gehiengo zabalak eskatzen duenarekin: euskal herritarroi aplikatzen zaigun Salbuespen legediaren amaiera, inkomunikazioaren amaiera, Audientzia Nazionalaren desagertzea. Bide beretik, udal honek bat egiten du Torturaren Aurkako

Taldeak aurkeztu eta Torturarekin amaitzea helburu duen 9 puntuko zerrendarekin. (banatu dugu mozioarekin batera 9. puntuko zerrenda).

6. Azkenik, udal honek, Tortura helburu politikoarekin erabiltzen dela salatu nahi du, euskal independentismoaren aurka eta Euskal Herriko eskubideen ukazioa iraunkortu asmoz. Hortaz, udal honek, Torturarekin, eta euskal herritarron eskubide urraketa guztiekin behingoz eta betirako amaitzeko marko demokratiko bat behar dela aldarrikatzen du. Euskal Herriaren eskubideak aitortu eta euskal herritar guztiok gure etorkizuna libreki eta aukera politiko guztien artean erabakitzea bermatua izango dugun marko demokratikoa, hain zuzen ere.

7. Onartutakoa herritarrei zein komunikabideei helaraziko zaie.

1. Este Ayuntamiento denuncia rotundamente las graves Torturas sufridas por Igor Portu y Mattin Sarasola a manos de la Guardia Civil, así como los miles de casos de tortura acumulados en largos años.

2. Este Ayuntamiento quiere dejar en evidencia y denunciar todas las responsabilidades existentes tras este caso de Tortura: las fuerzas policiales españolas que aplican la tortura, el Gobierno español que ordena o permite las torturas, el aparato de Justicia que le ofrece toda la impunidad, así como aquellos partidos políticos y medios de comunicación que pretenden silenciar o justificar este caso de Tortura.

3. Este Ayuntamiento, con la intención de acabar con la Tortura que ciudadan@s vasc@s sufren a manos de las fuerzas policiales españolas quiere subrayar lo siguiente: las fuerzas policiales españolas que torturan a ciudadanos y ciudadanas vascas así como los aparatos de Justicia española que garantizan su impunidad carecen de cualquier legitimidad en Euskal Herria. Por tanto, y teniendo en cuenta que mostrarles apoyo solo conlleva posibilitar la Tortura, solicitamos a los agentes políticos, sociales y sindicales que no les muestren su apoyo y que tomen una postura clara y las medidas necesarias para acabar definitivamente con la Tortura.

4. Este Ayuntamiento quiere denunciar, en especial, la postura que el Gobierno español, formado por el PSOE, ha tomado ante este caso de Tortura. Tanto el Ministro Rubalcaba como el Presidente Zapatero han mentido para intentar encubrir estas torturas, han mostrado un apoyo total a la Guardia Civil a la vez que auguraban la impunidad.

5. Este Ayuntamiento hace suya la demanda de la mayoría social en Euskal Herria: el final de la legislación de excepción que se aplica a la ciudadanía vasca, acabar con la incomunicación, desaparición de la Audiencia Nacional. De igual manera, este Ayuntamiento hace suyos los nueve puntos que el Torturaren Aurkako Taldea presentó con el objetivo de acabar con la Tortura.

6. Por último, este Ayuntamiento, quiere denunciar que la Tortura se utiliza con un objetivo político, en contra del independentismo vasco y con la intención de perpetuar la negación de derechos de Euskal Herria. Por tanto, este Ayuntamiento reivindica la necesidad de un marco democrático que acabe, de una vez y para siempre, con la Tortura y con todas las vulneraciones de derechos que sufre la ciudadanía vasca. Un marco democrático que reconozca los derechos de Euskal Herria y garantice el derecho de toda la ciudadanía a decidir libremente su futuro entre todas las opciones políticas.

7. Se informará de lo aprobado a los y las vecinas así como a los medios de comunicación.

Hau da mozioa eta nola ez gure aldeko bozka.

ALKATE-LEHENDAKARIA: Gure aldetik, M. Eugenia, bai esan, aurrekarietan eta, gustatuko litzaizkigukeen esaldiak ez daude jarrita gustatuko litzaizkigukeen bezala. Baina egia dena da joan behar dela pixkbat bat “al fondo de la cuestión”. Erderaz esaten den bezala ezta ? Eta gaia zer den, eta garbi dagoena da, oinarrizko eskubide guztien alde gaudela eta oinarrizko eskubide guzti horien, urraketa bat ematen denean, normala den bezala, beste batzuetan ere alde izan gara eta honetan ere alde gaudela. Beste gauza batzuren artean urraketa horiek ematen baldin badira eta beste Pleno batean ere aipatzen genuen, urraketa horiek baldin badatoz, etortzekotan, Estatuak dauzkan botere guztien aldetik, larritasuna areagotu egiten delako eta hori askoz ere larriago delako eta horren aurrean ezin ditugulako eskuak gurutzatuta eduki. Beraz gure aldeko botua nahiz eta reserba horiek eduki, baino berez “ en el fondo de la cuestión” esaten dena ados gaude. M. Eugenia.

M. EUGENIA ARRIZABALAGA ANDREA: Gu “ fondo de la cuestión” horrekin edo edukiarekin, zenbat gauzetan ados gaude edo egon gaitezke, baina guretzako formak eta aipamenak ere badute bere garrantzia.

Eta nahiz eta ez den irakurri aurrekarietan, Iñakik esaten duen bezala badaude zenbait esaldi ez zaizkigunak egokiak iruditzen. Hain zuzen gure kasuan,- aurreko Plenoan ere uste dut aipatu zen gaia zela-, abenduaren

bateko ekitaldi hari egiten zaion edo horri buruz egiten den aipamena, non idatzita dagoen bezala badirudi ekitaldi horretan parte hartu zuten alderdiek “a reglón seguido” horrelako jarreraren alde edo, egin zutela, eta gu ez gaude inolaz ere horrekin ados.

Beraz nahiz eta mozio alternatiboa planteatzeko testua zen, eta ezin izan dugu horrela sartu, zuek aurkeztutako mozioari ezezkoa ematen diogu eta gure botuaren adierazpen edo esplikazio bezala irakurtzen dut gure mozioa izan zitekeena, eta ez dena mozioa kasu honetan, baizik eta gure iritziaren azalpena eskatzea Espainiar Gobernuari.

Geldialdia da Euskadiren egoera politikoak bizi duena. Bake prozesua hautsi egin da, ETaren atentatu mehatxua egia da berriro ere. Lehendakaria eta beste zenbait politikari auziperatuak dira, geure gizartearen zati baten ordezkari politikoak legez kanpo dago eta ordezkari horren lider ugari espetxeratuak. Epaitegietan prozesu ugari dituzte ireki. Kale borroka indarrean.

Etengabeko oinarrizko eskubideen zapalketek –torturek, lege kanporaketek eta adierazpen eskubideari erasoek, pertsona nahiz ondasunen aurkako biolentziazko jardunek- ez diote inolaz ere laguntzen, gure herriak hain beharrezko duen soluzioaren bilaketari. Soluzioak baitu batetik oinarri, ezezkoa oinarriko eskubide ororen zapalketari; ezezkoa, bizitza, giza segurtasuna, adierazpen eskubidea, elkartzeko eskubidea e.a... zapaldu bide duen eraso orori; eta baiezkoa, eskubide horien guztien alde egiteari. Eta oinarri ere behar ditu, adostasun politikoaren bilaketara garamatzaten ekimen oro, gure herriak bizi duen gatazka politikoari irteera ematea helburu, herriari demokratikoki berezkoa zaion erabakitzeko eskubide horren errespetuzko jokabideen bideetatik.

Zuzenbide Estatu Demokratiko batekin dira torturak bateraezinak. Tortura susmorik txikiena ere argitu behar dela uste dugu; argitu eta salatu, giza eskubideen zapalketa handi baitira.

Horiek horrela, Udal honen plenorako hona gure ekarpenak, azalpen modura.

1. Estatuko Gobernuari Lege Antiterrorista bertan behera uzteko eskatzen diogu; Lege Antiterrorista eta atxilotuen isolatzea.
2. Azken egunotan, Estatuko Segurtasun indarrek atxilotuta, salatu berri dituzten tortura jardunen aurrean, gure kezka azaltzen dugu eta gertatua lehen bai-lehen –eta eraginkorki- argi dadin eskatzen, hartu beharreko erantzukizun guztiei aurre eginda.

3. Tortura nahiz tratu txarren aurka Udal honek luzatuak dituen adierazpen guztiekin bat egin nahi dugu berriro ere; pertsona ororen giza eskubide guztien defentsarako konpromisoarekin bat egiten, eta ezein biolentzia eta estortsio jarrereri uko egiten.
4. Isolamendu egoerari bide ematen dion arautegi berezia indargabetzea eskatzen dugu, atxilotuei prozedurazko bermeak baitizkie gutxiesten.
5. Isolamendu egoeran eta torturapean irekiak dituzten epai-prozesu guztiak, bertan behera utz ditzan eskatzen diogu auzitegi nazionalari.
6. Tortura saihestu eta saihaspen tresnen ezarpenerako, nazioarteko erakunde zenbaitzuek –batik bat ONUtik kontalari bereziak-esandakoak praktikara ekarri ditzan diogu eskatzen espainiar gobernuari.

Euskadi vive una situación de estancamiento político. El proceso de paz se ha roto, la amenaza de atentados de ETA vuelve a ser una realidad. El Lehendakari y otros líderes políticos están encausados, la representación política de una parte de nuestra sociedad está ilegalizada y muchos de sus líderes encarcelados. Existe un amplio abanico de procesos judiciales abiertos. La violencia callejera vuelve a estar presente.

Las constantes vulneraciones de derechos fundamentales que vivimos; torturas, ilegalizaciones, ataques a la libertad de expresión, coacciones, violencia contra bienes y personas, no contribuyen a la búsqueda de la solución que nuestro Pueblo reclama y necesita. Una solución basada por una parte, en el rechazo a toda vulneración de derechos fundamentales, como la vida, la integridad física, la libertad de expresión, el derecho de asociación, etc y la firme defensa de los mismos; y por otra, en la búsqueda de un acuerdo político que resuelva definitivamente el conflicto político que vive nuestro Pueblo basado en el respeto al derecho democrático que a este le asiste a decidir su futuro político.

Las torturas son incompatibles con un estado de derecho democrático, consideramos que el menor indicio de Tortura debe de ser esclarecido y a su vez denunciado, ya que suponen una grave vulneración de los derechos humanos.

Por todo ello, presentamos al pleno de esta corporación, como postura del grupo municipal de EAJ-PNV ante la moción presentada:

1. *Instamos al gobierno del Estado la derogación de la ley antiterrorista y a la desaparición de la incomunicación de los detenidos.*

2. *Ante los últimos y recientes testimonios de tortura realizados por personas detenidas por las fuerzas de seguridad del estado, manifestamos nuestra alarma y preocupación e instamos a que se lleve a cabo una investigación pronta y eficaz para aclarar los hechos y, en su caso, depurar responsabilidades.*
3. *Nos ratificamos en todas las declaraciones y resoluciones adoptadas por esta corporación en su rechazo a toda práctica de malos tratos y torturas y en su firme compromiso con la defensa de los derechos humanos y de las libertades de todas las personas cualquiera que sea su circunstancia así como en su oposición a todo tipo de violencia y extorsión.*
4. *Reiteramos la necesidad de derogar la legislación especial que regula la incomunicación, ámbito que merma de las garantías procesales de las personas detenidas.*
5. *Pedimos a la audiencia nacional la suspensión y archivo de todos los procedimientos judiciales donde se haya aplicado tortura e incomunicación a los detenidos.*
6. *Instamos al gobierno español a que traslade a la práctica los pronunciamientos que los distintos organismos internacionales han efectuado hasta la fecha, en especial las recomendaciones del relator especial de la ONU para la prevención de la Tortura y la implementación de los mecanismos de previsión.*

XABIER OLAIZOLA JNA: Iñakik esan duenaren harira, gu ere eskubide guztien alde gaudela esan nahi nuen. Eta edozein preso torturatzea eskubide horren urraketa larria dela.

Hemen uste dut ez duela inork zalantzan jarri torturatua izan dela eta nik ez dut zalantzan jarriko, oso argi bait daukat torturatuak izan direla. Argi daukat beraien bertsio ofizialak, guardia zibilaren bertsio ofizialak, ere nere ustez, tortura izan dela baieztatzen duela. Beraiek esaten dute atxilotzerakoan indarra erabili zutela, eta orduan hautsi ziotela saihetsa eta orduan zulatu zitzaiola birika, baina hemezortzi ordu beranduago eraman zuten sendagilearena, ez? Eta zauritua dagoen preso bati laguntza ukatzea tortura dela uste dut. Beraz, beraien bertsioa ere tortura dela uste dut. Ez daukat inongo zalantzarik eta uste dut, gogoz salatu behar dela tortura bat, giza eskubideen urraketa larria delako, eta behintzat gure aldeko botua.

ANDONI ETXANIZ JNA: Aste hauetan entzun ditugun gauzak eta aurretik entzundakoak ere kontraesan asko, eta non bizi garen ere, nik uste dut argitzen dutela.

Alde batetik José Bono bezalako pertsonajeak entzun ditugu, esanez, “que si tiene que haber victimas que sean del otro lado”, ez? Eta horrelako esaldiak esatea ardura politikoa duen eta berak izan dituen tamainako ardura politikoak izan dituen batek esatea niri izugarria iruditzen zait. Hori demagun ez dakit, nik esaten dudala gaur egun horrelako zorakeri bat zer gertatuko litzateke? Kargu egiten gara zer gertatuko litzatekeen? Eta José Bonori zer gertatzen zaio? Komunikabideetatik ere, bueno, “éstos tienen suerte de que no viven en Estados Unidos, porque sino allí, si se hubieran intentado escapar les hubieran pegado dos tiros “ eta sekulako barbaridadeak entzuten ditugu.

PNV-ek esaten du, “declaracion conjunta en el Congreso de Madrid”, abenduak bateko hori, hemen aipatzen dela eta badirudi mozio honek, hor egin zen “por la libertad y por la derrota de ETA”-ko azalpen hura edo bozkatu zen deklarazio politiko hura, erabiltzen dela modu ez egokian eta horregatik honi, kontra botatzen dio, bueno abstenitzea ez dakit.

Niri ere ez litzaidake egokia irudituko, baina kontra botatzea horrekin guztiz bat ez datorrelako eta redakzioan hor salaketa moduko bat edo bertan esan zena erabiltzen delako, gogoratu nahi dut bertan esan zela: “Apoyamos y respaldamos a todas las fuerzas y cuerpos de seguridad y a todos los componentes de la Administración de Justicia en la lucha contra el terrorismo”

Zertan ibili dira, azkenenego hogeitamar urteetan “todas las fuerzas y cuerpos de seguridad y todos los componentes de la Administración de Justicia”, horrek zer esan nahi du, horrek esan nahi du:

Apoyamos y respaldamos la dispersión?

Apoyamos y respaldamos la tortura?

Apoyamos y respaldamos las ilegalizaciones y criminalizaciones de ideas?

Apoyamos y respaldamos a Garzones y Grandes Marlascas?

Apoyamos y respaldamos a la Audiencia Nacional?

Apoyamos y respaldamos el cierre de periódicos y la tortura de sus directores?

Apoyamos y respaldamos las barbaridades que se han hecho contra este pueblo?

Ni harritzen nauena da, Madrilen inolako matizik egiteko kapazitatea ez dugunean, gero hemen Euskal Herrian, Euskal Herritarrak aurkezten dituzten mozioei, zer nolako matiz insalbableak egiten dizkiogun kontra bozkatzera eramaten gaituztenak eta han aldiz, horrelako deklarazio politiko totalitarista bati baietzko bozka ematea.

Bi postura horien artean, nik benetan ikusten dut, badagoela horrelako postura ekilibrio gutxikoa nire ustez behintzat, ezetz bozkatu behar dute, baina bueno, beroiena da ardura, honi baietz bozkatu zioten, beroiena da ardura.

M. EUGENIA ARRIZABALAGA ANDREA: Eta nik gogora ekarri nahiko nuke hori bozkatu edo aldarrikapen hori egin zen egunaren bezperan, -gero ETA-k komunikabideetan jakitera eman zuenaren arabera-, bi guardia zibil, bi tipo “ajustiziatu” edo nola zen? “ejekutatu” egin zituela. Eta orain dela hilabete, lehengo plenoan ere, jardun genuen honen inguruan. Eta “matizazioak” eta “orekak” eta “totalitarismoak” eta... hitzen erabilpena erraza da, ala erabili nahi baldin badira. Nahi baldin baduzu berriz ere irakurtzen dizut lehenago irakurri dudan testu guztia, gure postura zein den argi gera dakizun.

Baina gauza batzuetaz akordatzea eta besteetaz ez akordatzea... eta gauza batzuekin bat akordatzen ez den bitartean beste gauza batzuekin halako interpretazio exejetiko bat egitea..., ez dakit, hori zure estiloa da eta zure iritzia da, besterik gabe.

ANDONI ETXANIZ JNA: Badirudi ETA-ren iharduera justifika ezina dela, baino badirudi ETA-ren iharduerak dena justifikatzen duela.

Eta batzuk hemen ETA eskusa bezala erabiliz dena justifikatzen dute. Niri behintzat iruditzen zait, ETA-k egiten duena egiten duela, PNV-k zer egin behar duen ETA-ri begira egin gabe, egin behar duela. Zenbat aldiz esan du egin behar dena alboetara begiratu gabe eta aurrera begira ahal baldin bada.

M. EUGENIA ARRIZABALAGA ANDREA: Badirudi berriz ere irakurri egin beharko dizudala:

- 1.- Estatuko Gobernuari lege antiterrorista bertan behera uzteko eskatzen diogu, Lege Antiterrorista eta atxilotuen isolatzea.
- 2.- Azkenegun honetan Estatuko Segurtasun Indarrek atxilotuta salatu berri dituzten tortura jardueren aurrean gure kezka azaltzen dugu eta gertatua lehenbaitlehen eta eraginkorki argi dadin eskatzen hartu beharreko erantzunkizun guztiei aurre eginda.
- 3.-Tortura nahiz Tratu Txarren aurka Udal honek luzatuak dituen adierazpen guztiakin bat egin nahi dugu berriro ere, Pertsona ororen giza eskubide guztien defentsarako konpromizioarekin bat egiten eta ezen biolentzia eta estortsio jarrereri uko egiten.
- 4.- Isolamendu egoerari bide ematen dion arautegi berezia indargabetzea eskatzen dugu, atxilotuei prozedurazko bermeak baidizkie gutxiesten.
- 5.- Isolamendu egoeran eta torturapean irekiak dituzten epai-prozesu guztiak bertan behera utz ditzan eskatzen diogu Auzitegi Nazionalari.

6.-Tortura saihestu eta saihaspen tresnen ezarpenerako Nazioarteko Erakunde Zenbaitzuek batik bat ONUtik kontalari bereziak esandakoak praktikara ekarri ditzan diogu eskatzen Espainiar Gobernuari.

ANDONI ETXANIZ JNA: Hau esan zenutelako mozio alternatibo bat ekarri behar duzue, hau esan ez bazenute gaur mozio alternatiborik ez zen egongo. Hori bakarrik, bueno ez dago mozio alternatiborik baina ez zuten prestatu, baino dena den, ez dakit, “hasta el amanecer” egon gaitezke eta uste dut ez garela ados jarriko, eta nigatikan behintzat...

ALKATE-LEHENDAKARIA: bozkatzera pasako gara.

ERABAKI ZATIA

MOZIOA: IGOR PORTU ETA MATTIN SARASOLA.

Aldeko botuak: 5 (3 ANV , 1 EA eta 1 ARALAR)
Aurkako botuak : 2 (EAJ)
Abstentzioak: 0

ERABAKI DA:

MOZIOA, IGOR PORTU ETA MATTIN SARASOLA. onartzea.

PARTE RESOLUTIVA

MOCION: IGOR PORTU Y MATTIN SARASOLA.

Votos a favor: 5 (3 ANV, 1 EA y 1 Aralar)
Votos en contra: 2 (PNV)
Abstenciones: 0

SE ACUERDA:

Aprobar la moción IGOR PORTU Y MATTIN SARASOLA.

3.- HIRIGINTZA.- (AU 06) ZELAIA-KONBENTUA HIRIGINTZ HITZARMENAREN AKORDIO OSAGARRIA

3.- URBANISMO.- ACUERDO COMPLEMENTARIO CONVENIO URBANISTICO EN (A.U. 06) CONVENTO-ZELAIA

ALKATE-LEHENDAKARIA: Hirugarrenko puntua eskari-galderak hasi aurretik, ZELAIA-KONBENTUA HIRIGINTZ HITZARMENAREN AKORDIO OSAGARRIA. Gai hau eztabaidatu genuen Hirigintza Batzordean, aurreko, azkenengo Hirigintza Batzordean oker ez baldin banago. Zuk irakurri ezazu, baino nik usten nuen guztiak etorri behar zutela baina azkenean, ezetz.

IDAZKARIA: Prozedura aldetik, aipatu behar dena da, gai hau sartu dela baina diktamenik ez daukala eta orduan araudiak esaten duena da egin behar dena dela, lehenengo gai ordenean ratifikatu bere inklusioa, eta horretarako aldeko boto gehiago izan da, nahikoa da, kontrako baino aldeko boto gehiago, ados baldin bazaudete gai hau tratatzea, bozkatu egin behar da.

LEHENDAKARIA: Bai badakigu zeri buruz den Hirigintza Batzordean ikusi dugu, eta bueno nahi baldin baduzue eztabaidatu gai hau hemen Plenoan. M. Eugenia.

M. EUGENIA ARRIZABALAGA: Aipatu duzuen bezala botazio hau datorkigu batzordean diktaminatu ez den gaia delako. Beraz oraindik ere, momentu honetan, ez da ezer aldatu bere egunean onartu zen hitzarmenarekiko, baina hala ere badakigu -edo behintzat horrela entzun dugu-, Ondartxo Plazako etxe berrietako eskriturak egiten ari direla. Eta gure harridura adierazi nahi dugu eta horrela nahi dugu gera dadila jasota aktan. Aurreko agintaldian transparentzi aldeko oihuak botatzen zenituzten zeurok gaur hona aurrez diktamena pasa gabe ekartzen duzuelako gaia, urgentziazkoa dela esanez. Aitzakitan. Eta gure ustez aitzakia izango da indarrean dagoen Hirigintz hitzarmenari dagoeneko huts egiten ari zaiola jakin da. Beraz prozedurari buruzko zalantzak edukitzea ez ezik, (oraintxe Mirenek argitu ditu, ez zalantza formalak baizik eta egokitasunezko zalantzak) Gobernu taldearen koherentzia ere zalantzan jartzen dugu eta gaiaren urgentzia bera ere bai, eta abstenitu egingo gara.

ALKATE-LEHENDAKARIA: Xabier.

XABIER OLAIZOLA JNA: Nik esan ez nagoela Hirigintza batzordean Cristina dagoela, baina aldeko botua emango diogula.

Baita ere esan ez zaidala iruditzen oso modu eraginkorra Plenora ekartzeko hau, nik ez daukat batere informaziorik, Cristinak esan didana besterik ez, eta bueno, baina aldeko botua emango dugu.

ANDONI ETXANIZ JNA: Ni hirigintzako batzordeburua naizenez, gai hau zer nolako transparentzia, gardentasun edo ze modutan eman den esplikatu nahiko nuke.

Orain dela, gaur zer da 31, astelehen hau zen 28, ba, 21ean Hirigintza batzordean, urtarrilaren 21ean gai hau tratatu zen, Altuna eta Uriak konbenioa aldatzeko edo proposamen bat ekarri zuen eta proposamen hori bertan ikusi genuen. Abal bat ezartzeko asmoa zuen, 30 mila €tako, orain firmaturik daukan konbenioa Zumaiako udalarekin bete behar batzuk, aitortzen zizkion Altuna eta Uriari, eta bete behar horiek ziren Amaia plazako etxebizitzak eskiriturazten hasi aurretikan Oikiako Babes Ofizialeko etxebizitzak bukatuak egon behar zirela.

Nabarmena denez, Amaia plazaokoak bukatu dira eta Oikiakoak bukatzeke daude, eta bueno bukatzeke egonagatikan oso aurreratua dago eta bi hilabetean edo bi hilabete t´erdian bukatuak egongo dira.

Gerturatu ziren guregana ea konbenioari aldaketa bat egiteko aukerarik ba ote zegoen, abalak jarriko lituzketeela, ekonomikoak, falta den obra bermatuko zituen abalak. Esan genien redakzio bat prestatzeko eta prestatuta izan genuenean hirigintza batzordera eramán genuen. Bertan guztiok tratatu genuen, ikusi genuen, Manuel Zubia etorri zen hirigintza batzorde hartara, nahiz eta M. Eugenia Arrizabalaga izan hirigintza batzordeko zinegotzi titularra edo, baina guk ez daukagu inongo arazorik, gure gardentasun gogo horrek ez digu inondik inora eragiten titularra ez baldin badator besteari ez dakit zer nolako eskaera egiteko, guri egiten zaigu Urola Kostako Mankomunitatean, baina hori beste gai bat da.

Bertan irakurri zen eta nabarmena zen kopurua 30 mila €k ez zuela abalatzén ezer, eta horrela hitzegin eta horrela helarazi genion Altuna eta Uriari. Gure ekipo teknikoa edo udaletxeko ekipo teknikoa joan zen bertara, ikusi zuen zer lan falta ziren eta kuantifikatu zuen zenbatekoa izan behar zuen abal hori. Abal hori izan behar zuen 240 mila €tako, bertan falta ziren lanak abalatzeko eta aurkeztu zuten abala izan zen 250 mila €tako. Hau aurkeztu zen 21ean, ez 14ean, 21ean ekarri genuen 250 mila €tako abala eta bertan ia egoki iruditu zitzaigun abala nahiko bazela, baino hala ere duda batzuk geneuzkan Juridikoki zer nolako urratsak eman behar ziren, konbenioa moldatzeko edo aldatzeko eta Arrue eta Jauregi, hemen 15ean behin izaten direnez, zain egon ginen beroiek etorri eta egin behar genizkien galderak egiteko eta hori astelehen honetan izan zen eta beroiek esan ziguten ez zela Modificación Sustancial del Convenio, baizik eta

bueno Plenotikan gaur ekarri duguna bezala ekarriz gero onartua izango zela.

Ez da gai bat horrelako konplikaziorik edo rifi-rafe politikorik izan duena, inondik inora, denok ados egon gera une oro eta guk pentsatzen dugu Udala ahal duen neurrian behintzat ejekutiboa izan behar duela eta gaiak aurrera atera behar dituela. Horregatik hirigintza batzordean tratatu genuen arratsaldean, nahiz eta eguerdian bidalia zegoen eguneko aztergaia. Hirigintza batzordean tratatu genuen eta bertan komentatu genuen ea zer iruditzen zitzaizuen eta sartu zen eta sartua dagoenez bozkatu dugu eta bozkatu dugunez tratatzen ari gara, baina bueno, mamuak bilatu nahi baldin badira edozein lekutan topatu daitezke.

Baina gure ustez, gardentasun faltarik behintzat ez. Orain dela hiru aste hirigintza batzordean tratatu zen, orain dela bi aste hirigintza batzordean tratatu zen, aste honetan berriz ere tratatu da eta gaia argia da. Abal bat jarri behar zen, abalaren balio ekonomikoa izan behar zuen abalatzen duena kubritzeko modukoa, eta hori da ekartzen dena, horrelako eztabaida politiko bat horrekin egin nahi baldin badugu, nik behintzat ez daukat inongo gogorik.

Plenoak gaia mahai gainetikan kentzea nahi baldin bazuen, gaia mahai gainetikan kendu zezala baina Plenoak gaia mahai gainean jartzea ez dela inondik inora ezer arraro dio eta zergatikan egin diren gauzak egin diren bezala badaki, horregatikan gaude tratatzen.

Nik ez nekien Amaiako plazako etxebizitzak eskrituratzen ari zirenik, orain enteratzen naiz. Eta jarriko naiz Altuna eta Uriarekin harremanetan eta hori horrela baldin bada, ez dakit, eman behar diren urratsak emango ditugu. Agian hori horrela izanik, gaur hemen daukagun puntu hau mahai gainetik kentzea ere ez litzateke desegokia izango, zeren guk geure aldetik borondate onarekin jokatu dugu, gure aurpegia jarriz beste batzuek masaileko bat emateko. Beste batzuek erabili dute gure gardentasuna eta gure izen ona dudan jartzeko gai hau. Borondate onenarekin ekarri dugu eta ikusten dugu Altuna eta Uriak ez duela borondate on berdina. Ez nau harritzen, baina bueno. Eta agian beroieik ia eskrituratzen ari badira, honen zain egon gabe, hau eskatu dutenean egitea eta hitzegiten egon garenean eta guk hirigintza batzordera eraman dugunean eta urratsak eman ditugunean, gure ustez eman behar ziren bezala, beste batzuk zain egon ez baldin badira, orain zertarako onartu behar dugu, ez? Ia egin baldin badira, honek ia ez dauka eraginkortasunik? Ia hau “papel mojado” da, eskrituratzen ari baldin badira, eskrituratzen ari dira?

M. EUGENIA ARRIZABALAGA ANDREA: Niri notarioak ez dit esan, kalean entzun dut, eta bi lagun desberdinek esan didate. Ni notarioa ez naiz eta notarioak ez ziren beraiek ere.

ANDONI ETXANIZ JNA: Bueno, kalean horrenbeste gauza entzuten direnez.

M. EUGENIA ARRIZABALAGA ANDREA: Hori ere egia da.

ANDONI ETXANIZ JNA: Ba azkenean mahai gainean mantentzea proposatzen dut.

IDAZKARIA: Nik prudentziz edo, hartu egingo nuke erabakia. Jada hemen bait dago. Gero ikusten baldin badugu notarioak ziurtatuta, beraiek ez dutela bere hitza bete, zeren agian igual notaritzan egongo dira papeleoak egiten baina ez dakit eskrituratu dituzten eta firmatu dituzten bi aldeek. Akordioan jaso daitekeena da baldin eta hori egin baldin badute deuztatuta gelditzen dela edo baliorik gabe gelditzen dela.

ANDONI ETXANIZ JNA: Ados. Agian konbenioan egiten den aldaketa zuk, zeuk, irakurtzen badiguzu ...

M. EUGENIA ARRIZABALAGA ANDREA: Egon pixka bat. Pare bat gauza komentatu nahiko nituzke. Alde batetik, aipatzen duzue zuen gardentasuna, etbr., eta horretarako adibide bezala jartzen dezue, ba nik bilerara etorri ezin nuen batean Manu etorri zela batzordera eta zuek ez zenutela inolako eragozpenik jarri. Eta hemen jendea daukatzutenez aurrez aurre akaso atera dezaketen ondorioa da, guk eragozpenak jartzen genituela horrelakoetan, eta mesedez argi geratu dadila denen aurrean, hori ez dela horrela. Burutik pasa ere ez zaigula egin sekula santan.

Baiezkoa eman zaio eta tratatuko da gaia eta ados. Plenoak horrela erabaki du.

Esaten duzu eztabaida Politikorako nahikoa aitzaki edo nahiko arrazoi ez duen gai bat dela eta ez dakit zer baina... gauza guzti horiek dira erabat subjektiboak, norberak pentsatzen dituenak, eta gainera argi denez, segun eta norbera hori non dagoen eserita mahai honen inguruan ba.... era batera edo bestera ikusten dituenak, eta akaso ba.... urte batzuk elkar ezagutuaz

daramatzagulako hemen ba.... nabarmentzen ditugu orain nabarmendu nahi izan ditugun gure urtetako kontraesan hauek, besterik gabe.

XABIER OLAIZOLA JNA: Eta eskrituratzan ari badira zer egin behar dugu? Zer egin behar duzue? Hau da, niri iruditzen zait, orain erabaki bat hartu behar dugula.

IDAZKARIA: Egin beharko genukeena da, notarioarekin harremanetan jarri esan, zein baldintzetan dagoen hitzarmena eta hitzarmen horren arabera ez dagoela eskriturazterik, lehen erabilerako baimenik izan gabe. Era guztietara gauza horiek egiten die. Baina berez lehen erabilerako baimena behar du, agian zorrozki ez da eskatzen notaritzatik baino hori ezinbestekoa da. Baina bai horrelako gauzak gertatzen zaizkigu.

M. EUGENIA ARRIZABALAGA ANDREA: Edo, akaso aurreko tramiteak egiten ari dira, edo... ez dakit nola den kontua... edo dena gezurra da eta bi lagunengandik gezurra entzun dut..., ez dakit, nik ez dakit.

Eta hala ere hor gertatzen dena da, hitz egin baldin bada promotorearekin orain dela hilabete bat hori aurkeztu zizuenetik eta eztabaida horretan abala zenbatekoa izan, ez izan, eta abokatuak sustantziala edo ez sustantziala zela esan zain egon baldin bazarete..., pentsatzen dut, baita ere, egoera horrek sortu duela promotorearengan horrelako konfidantza bat ontzat emango zuela udalak bere proposamena... Eta ez dut ikusten erabat itxura gabekoa aurrea hartu nahi izana mundu guztiak egiten duelako presioa, promotoreak Udalari, eta promotorearen erosleek promotoreari, ezta?

ANDONI ETXANIZ OSA JNA: Es ke, promotoreak aurrea hartu nahi izan hori erabat gaizki ez ikustea, eta guk aurre hartu nahi izatea eta gaia gaur hemen tratatu nahi izatea, erabat gaizki ikustea, es ke ez dut ulertzen. Promotorearekiko jarrera ez dakit, egokiagoa dela..

M. EUGENIA ARRIZABALAGA ANDREA: Ez, ez, barkatu.

ANDONI ETXANIZ OSA: Es ke berdina da, azkenean jarrera berdina izan daiteke, ez? Guk, aurre hartu nahi izan dugu eta gaia ekarri dugu,

ikusten dugulako ari garela gaiari duena baino askoz ere garrantzia gehiago ematen, eta berriz ere jendea aspertzen eta tratatzen da, baina normaltasun bat lortu nahiz.

M. EUGENIA ARRIZABALAGA ANDREA: Orain dela sei urte, onartu genuen hirigintz hitzarmen hori. Bi helburu zituen eta bi lorpen zekarzkitzan.

Bat, komentua udalarena izatea,- eta orain dela gutxi monjak ez dakit azkenen joan diren edo ez, baina ia iminentea da udalarena jabetza ez ezik, posesioa ere izatea- eta bigarrena zen Oikiarrek eskatzen zituzten etxe babestuak egitea, eta hori ere lortu da.

Oraindik etxeak ez dira bukatu, egia da, Hirigintz hitzarmen hartan, herriaren defentsan, edo herriaren eskubide eta interesen defentsan, jartzen zen berme bat eta berme hori zen Oikiako etxeak bukatu arte ez zirela Amaiako plazako okupazioko lizentziak emango.

Promotoreak gehiago korritu dute Amaiako plazako etxeetan Oikiako etxeetan baino.

Gure ustez Oikiako etxeetan atzerapen bat egon da eta gure ustez atzerapen horren errua, barkatu baina, esan daiteke neurri batetan udal gobernuarena dela.

Edozein modutara, nik ez dut esaten promotoreak ondo egiten duenik Udala presionatzen, ez; bere logikaren barruan kabitzen dela baizik, besteak atzetikan edukiko dituelako eta interesatzen zaiolako lehenbaitlehen saltzea.

Nik esaten dudana da, hemen izatekotan ere eta kontzeptu kontuetan ari gara, - herriak bere eskubide eta bere defentsen berme horren aldaketa bat planteatzen-, pentsatzen dut altura hauetan ez dela arazorik egongo Oikiako etxeekin, horixe bakarrik faltako litzateke, eta hemendikan hiruzpalau edo bi edo zazpi hilabeteetara bukatuko direla eta emango direla zozketen bitartez, eta gainera pozten gaitu horrek.

Baina gauzak batzuetan garrantzi ikaragarria edukitzen dute eta beste batzuetan berriz askoz garrantzi handiagoa daukatenak, ui, ez dute batere garrantzirik... Eta hor koxka bat, eh?....

ALKATE-LEHENDAKARIA: Gauza bat ez dizut ulertu, esan duzunean hor ere Udal Gobernuak bere erantzunkizuna edo errua izango duela atzerapen horretan, ez dizut ondo ulertu zer esan nahi zenuen.

M. EUGENIA ARRIZABALAGA ANDREA: Zergatik promotoreari ez zaion akuilua sartu Oikian lanak Amaiako plazan baino gehiago aurreratzeko, adibidez?

ALKATE-LEHENDAKARIA: Hain zuzen ere, harritu egin nau zure adierazpenak, beraiei entzun da esaten zutelako, aurreko gobernuan zeundetenak tramitazioa geldo xamar egin zenutela eta beraz errua udalarena dela beraiek udalari egozten diotelako baina, aurreko udal Gobernuan zeudenei eragozten die errua, beraz, zu zeure buruari ari zera errua eragozten.

M. EUGENIA ARRIZABALAGA ANDREA: Ez barkatu, hori da promotoreak orain zuri esaten dizuna.

ALKATE-LEHENDAKARIA: Errua, beraz, denok.

ANDONI ETXANIZ OSA: Dena den, lasai egon zergatik Altuna eta Uriak ez gaitu batere presionatu, momentuan behintzat ez dugu inongo presiorik sentitu.

Urrats hauek ematen baditugu, logikoak edo egokiak iruditzen zaizkigulako dira.

Berme batzuk aldatzen dira, beste berme batzuentatik. 250 mila € ko bermea jartzen da egikaritzeko geratzen den obra, 240 mila €akoa denean. Eta gaur egun oraindik eta txikiagoa izango da, zeren bueno, asteak aurrera dihoaz eta han ere lanak aurrera joango dira.

Dena den Altuna eta Uriak Zumaian egin behar dituen urbanizazio andanak kontutan hartuta, Torreagan egin behar dituen 252 etxebizitza kontuan hartuta eta gero Ortizen egin behar dituen etxebizitzak ere kontuan hartzen baldin baditugu, beste 48, ez dut uste jolasean ibiltzeko gogorik edukiko duenik Udaletxe honekin eta jolasean egiteko gogoia baldin badauka presioa sentituko du, guk presionatuko dugulako, baina Altuna eta Uria gu presionatzen ez da ibiliko, inoiz ez, ez zaio komeni eta.

ALKATE-LEHENDAKARIA: Bukatzea falta da, ez dakit ia non gauden.

ANDONI ETXANIZ OSA: Proposamena irakurri egin beharko da, ez?

ALKATE-LEHENDAKARIA: Ah? Es ke, ez dakit, ia non gauden?

IDAZKARIA: Udaletxeko zerbitzu teknikoetatik txostena luzatu dute, hor daukazue eta bueno hemen aurrekarietan esaten dena da, 2003an otsailaren 20an izenpetu zela konbenio hori eta beste puntu batzuren artean, lehenago komentatu dena.

Hitzarmenean aurre ikusten zen Babes Ofizialeko etxebizitza kopuru bat, gune horretatik Oikiara pasatzera, obligazio hori, orduan, garanti bezala adierazten zen konbenio horretan, Amaiaiko plazako etxebizitzaren lehenengo erabilera edo lehenengo okupazio baimena, babes ofizialeko etxebizitzaren eraiketaren baldintzapean geldituko zela.

Ondoren idatzi bat aurkeztu zuen Altuna y Uriak eta hemen komentatu den bezala, aipatzen zena zen beraiek abal bat jarriko zutela hori garantizatzeko eta kopuruetan adostasun batera iritsi ondorenen ba 250 mila €ko abala jartzeko adostasuna iritsi da.

Baita ere esan kopuru hori horrela izan dela Udal zerbitzu teknikoek bisita bat egin zutelako, inspektionatu zituzten etxebizitza horiek eta ikusi zituzten ate batzuk falta zirela, parkelina edo ez zegoela jarrita, eskaileretako barandilak falta zirela, bainugeletako aparatuak eta hori dena baloratu dute eta azkenean 250 mila €ko kopuru horretara iritsi dira.

Hemen esaten dena da, aipatutako lanak amaitzeko epe bat jartzea hori izango da hiru hilabeteko epea, 2008ko apirilaren 30a, eta kopurua dela 250 mila €koa.

Aipamen bat egiten da akzesio bati buruz eta akzesio hori dirudienez birplanteatu egin behar da eta ez dakit dokumentu digitalizatua eta lanen amaiera dokumentazioa aurkezten dutenean esango dute zein erataria edo egingo den, eta bueno badirudi irekita dagoela baita ere obligazio hori beste erabaterara ordezkatzeko edo.....

M. EUGENIA ARRIZABALAGA ANDREA: Barkatu, hori ez dakit zer den eta ez dut ezer ulertu.

IDAZKARIA: Akzesioarena begira, hemen azkenengo puntuan jartzen du: Sarrerako iraganbidearen irekierari dagokionez, Udal zerbitzu teknikoaren aurrean birplanteatu beharko da dokumentazio digitalizatua eta lehen amaierako dokumentazio aukeztuko direlarik, agian igual Andonik hobetoago esplikatu du hori, edo erderaz irakurtzen badut hobeto ulertuko da. Jartzen du..... “Referente a la apertura de la galería de acceso,” hor sarbide bat edo egin beharko da, ez?

M. EUGENIA ARRIZABALAGA ANDREA: Ari gara... Itzurungo aldapatik barrukaldera ari gara..., eske... Oikiako kontuetaz ari ginelakoan..., ados.

IDAZKARIA: Orain ulertuta dago? ez dago irakurri beharrik?

ANDONI ETXANIZ OSA JNA: Kontua da, galeria bat edo bazegoela peatonala, proiektuan aurreikusia.

Altuna eta Uria, Eroski, Super B M, eta beste batzuekin negoziatzen ari zela eta galeria edo lokal komertzial guzti horiek batu nahi izan zituela. Udalaren partetik esan zitzaion, baldin eta horrelako aktibidade bat joaten baldin bazen, ba itxitura horrek bere logika eduki zezakeela, baino baldin eta hori ziurtatuta baldin bazegoen.

Esan zigutena da, guk egingo duguna da itxi, ez baldin badator Eroskirik edo Super B M rik, gero irekiko dugu. Ados, Itxi ezazute baino, gero ez baldin badago horrelakorik ireki egin beharko da.

Kontua da ireki beharrean gaudela. Zeren, baita ere, hirigintzatik pasa zen zer nolako konpentsazio mota proposatu zuten, mahai gainean jarri genuen eta ez zitzaigun egokia iruditu. Konpentsatzeko beste modu eta beste forma batzuk planteatu genizkien. Beroiei ez zaizkie egokiak iruditu eta azkenean beroiek esan dutena da, ireki egingo dugu eta horrela ez dago ezer konpentsatu beharrik. Egin behar zen bezala egingo da, horrela egingo da eta kitto. Akzesio peatonal bat irekiko da, edo kale peatonal hori eta azkenean proiektuan zegoena egingo da, Amaia plazako urbanizazioan.

ALKATE LEHENDAKARIA: Orain bai, bozkatzera pasako gara.

Zera adierazten da presazkotasun arrazoiak bide, ezin izan dela gai ordena prestatu aurretik ZELAIA-KONBENTUA HIRIGINTZ HITZARMENAREN AKORDIO OSAGARRIA. Hirigintza Batzordean diktaminatua izan. Beraz, udalbatza osoari eskatzen zaio ratifikatu dezala gai ordenean aipaturiko gaia sartzearen bidez kotasuna.

Alkate jaunak barne araudiko 82,3. artikulua ematen dion ahalmenaz baliatuz, gai-zerrendan ZELAIA-KONBENTUA HIRIGINTZ HITZARMENAREN

Se expone que por razones de urgencia no se ha podido dictaminar la aprobación del ACUERDO COMPLEMENTARIO CONVENIO URBANISTICO EN (A.U. 06) CONVENTO-ZELAIA en la Comisión de Urbanismo antes de preparar el orden del día. Por lo tanto, procede que la corporación ratifique por urgencia la inclusión del tema en el Orden del Día .

El Alcalde , haciendo uso de la facultad que le confiere el artículo 82,3 del ROF, propone que se incluya la adopción del ACUERDO

AKORDIO OSAGARRIA. gai ordenean sartzea ratifikatzea proposatzen du, presazkoa dela aintzat hartuta, bilkuran eztabaida dadin.

Gai hori eztabaidatzearen presazko izaera ratifikatzea bozkatzeko da, eta, jarraian, udalbatzara bertaratu diren zinegotziek, legeak eskatutako gehiengoa betez, proposatutako gaiaren presazko izaera eta gai hori eztabaidatzearen bidezko tasuna deklaratu dute.

ERABAKI ZATIA

HIRIGINTZA.- (AU 06) ZELAIA-KONBENTUA HIRIGINTZ HITZARMENAREN AKORDIO OSAGARRIA

HIRIGINTZA DEPARTAMENTUA TXOSTEN TEKNIKOA, 1/08 zk.

PROIEKTUA: ERAIKUNTZA: 95 ETXEBIZITZA, LOKALAK ETA GARAJEAK
PLANGINTZA:
KOKAPENA: LURZATIA: AU 06 / UE 19.3 (AU 19)
AREA: ZELAIA-KOMENTUA /

OIKIA
FASEA: HIRIGINTZA
HITZARMENDIA: DOKUMENTAZIO

OSAGARRIA
ERAGILEA: ALTUNA Y URIA S.A.
TALDE EGILEA: ALTUNA Y URIA S.A.
ONIRITZIAREN DATA:
SARRERA ERREGISTROKO DATA: 08-01-18
TXOSTENAREN DATA: 08-01-28

1.-AURREKARIAK/ANTECEDENTES.

2003ko otsailaren 20an, Hirigintza Hitzarmena sinatu zen Zumaiako Udala, Zumaiako San Jose Karmeldar Ama Oinutsen Komentua eta Altuna y Uria, AU 06ko enpresa eraikitzailearen artean, "AU 06 Zelaia-Komentua Hiri Area" garatzeko. Hitzarmenaren estipulazioen barruan, bigarrenak, zehazki zera zion:

“BIGARRENA.- “ALTUNA Y URIA S.A.”

COMPLEMENTARIO CONVENIO URBANISTICO EN (A.U. 06) CONVENTO-ZELAIA en el orden del día, por motivos de urgencia.

Se procede a la votación para ratificar la urgencia del debate. Con el quorum legalmente establecido, los corporativos asistentes al Pleno, declaran urgente el tema propuesto y la procedencia del debate.

PARTE RESOLUTIVA

URBANISMO.- ACUERDO COMPLEMENTARIO CONVENIO URBANISTICO EN (A.U. 06) CONVENTO-ZELAIA

HIRIGINTZA DEPARTAMENTUA TXOSTEN TEKNIKOA, 1/08 zk.

PROIEKTUA: ERAIKUNTZA: 95 VIVIENDAS Y LOCALES Y GARAJES
PLANGINTZA:
KOKAPENA: LURZATIA: AU 06 / UE 19.3 (AU 19)

AREA: ZELAIA-KONVENTO / OIKIA
FASEA: CONVENIO URBANISTICO: DOCUMENTACION COMPLEMENTARIA

ERAGILEA: ALTUNA Y URIA S.A.
TALDE EGILEA: ALTUNA Y URIA S.A.
ONIRITZIAREN DATA:
SARRERA ERREGISTROKO DATA: 18-01-08
TXOSTENAREN DATA: 28-01-08

1.-AURREKARIAK/ANTECEDENTES.

En 20 de febrero de 2003, se firma un Convenio Urbanístico entre el Ayuntamiento de Zumaia, el Convento de MM Carmelitas Descalzas de San José de Zumaia y la empresa constructora Altuna y Uria AU 06, para el desarrollo del "Area Urbana AU 06 Zelaia-Convento". Dentro de las estipulaciones del Convenio, la segunda de ellas se refería concretamente a:

“SEGUNDA.-La Entidad Mercantil

Merkatal Erakundeak, ekainaren 30eko 17/94 Legea garatzen duen, Eusko Jaurlaritzako, Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurumen Departamentuaren 1997ko ekainaren 17ko (143 Dekretua) Erregelamenduaren 2.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, %20ko Babes Ofizialeko etxebizitzak eraikitze konpromezua hartzen du, gutxienez 20 etxebizitza, Zumaia-ko Planeamenduko Arau Subsidiarioetako Berrazterketa Dokumentuan 19 Hirigintza Area bezala izendatutako gunean, 06.Zelaia/Komentua Hirigintza Area, behar horretatik libre gelditzen delarik.

Babes Ofizialeko Araubidera lotutako Babes Ofizialeko etxebizitzak, Zumaia-ko Udalak berak esleituko ditu, alde zuzenetik, zerrondak eta zozketa bezalako ohiko izapideak burutu ondoren.

Horretarako, Zumaia-ko Udaleri emango zaio, izapidea egiteko beharrezkoa den dokumentazioa eta Udalak, bere aldetik, etxebizitzak esleitutakoei jakinarazpenak igorriko dizkie, beharrezko kontratuak beraien izenean jartzeko.

Aipaturiko babes ofizialeko etxebizitzak eraikitze baimena, AU 06 Zelai/Komentuaren Kontentsazio Proiektuaren behin-betiko onarpenetik, gehienez ere, hiru hilabeteko epean eskatu beharko da. Etxebizitza libreen Lehenengo Okupazioaren baimenean derrigortasun hori bermatu ahal izateko, babes ofizialeko etxebizitzak eraiketaren baldintzapean geldituko da”.

2.- IRUZKINAK/COMENTARIOS.

08/01/18an, 07/12/26ko idazkiaren jarraipena den beste bat aurkeztu da eta bertan adierazten da AU 06 Zelai-ko eraiketa lanak eta urbanizazioa amaitu direla eta etxebizitza horien lehen erabilpenerako baimena eskatzen dela, 250.000 €ko banku-abala jartzeko prest egonik, AU 19 (UE 19.3) ko Hitzarmenean aipatzen diren etxebizitzak amaituta emateko berme gisa.

Kopuru hori ontzat ematen da. 07/01/21an obrara egindako bisitan, hau sinatzen duen teknikariaren iritziz, ondorengoak falta dira lanak amaitzeko:

*Eraiketa: Barruko aldeko atearak.

“ALTUNA Y URÍA S.A.”, a tenor de lo dispuesto en el art. 2.1 del Reglamento que desarrolla la Ley 17/94 de 30 de junio (Decreto 142) 1997 de 17 de junio del Departamento de Ordenación del Territorio, Vivienda y Medio Ambiente del Gobierno Vasco, asume el compromiso de construcción del 20% de viviendas de Protección Oficial, al menos 20 viviendas que se ubicarán en el Área Urbanística 19 denominada Oikia del Documento de Revisión de las Normas Subsidiarias de Planeamiento de Zumaia, quedando liberado de tal obligación en el Área Urbanística 06.Zelaia/Convento.

Las viviendas sujetas al Régimen de Protección Oficial serán adjudicadas por el propio Ayuntamiento de Zumaia previos los trámites habituales de elaboración de listas, sorteo.

A tal efecto, se facilitará al Ayuntamiento de Zumaia la documentación necesaria para tal tramitación, debiendo el Ayuntamiento por su parte, notificar a los propietarios adjudicatarios de las viviendas, a cuyo nombre deberán formalizarse los oportunos contratos.

La licencia de construcción de las citadas viviendas de protección oficial, se deberá solicitar en un plazo no superior a tres meses desde la fecha de aprobación definitiva del Proyecto de Compensación del AU 06 Zelai/Convento. Con objeto de garantizar dicha obligación la licencia de Primera Ocupación de las viviendas libres quedará supeditada a la construcción de las viviendas de protección oficial”.

2.- IRUZKINAK/COMENTARIOS.

Presentan en escrito de 18/01/08, de continuación de otro de 26/12/07, donde manifestando que han finalizado las obras de edificación y urbanización en el AU 06 Zelaia, solicitan la licencia de primera edificación de las mismas, accediendo al depósito de un aval bancario por importe de 250.000 € como garantía de entregar terminadas las viviendas referidas en el Convenio en el AU 19 (UE 19.3).

Dicha cantidad se considera válida, pues en visita de obra de fecha 21/01/07, el técnico que suscribe estimó las obras que faltaban por realizar en:

Oinoholak eta parkelita.
Hautatzeko mekanismoak eta bestelakoak.
Eskaileretako barandilak.
Bainugeletako aparailuak eta bestelakoak.
Barruko aldea margotzea..... etxebizitzako

12.500 € aurkeztutako proiektu teknikoan aipatzen diren prezioen arabera. Babes Ofizialeko Etxebizitzak 20 izanik, lehenengo okupazioaren baimena, segurtasun, osasungarritasun, garbitasun eta apaingarritasun baldintzetan eman ahal izateko, bermea beteko lukeen kopurua izango litzateke:

20 etxebizitza x 12.500 € = 250.000 €

3.-ONDORIOAK/CONCLUSIONES.

Idazkia onartu eta Hirigintza Hitzarmenaren eranskin bezala formalizatu.

Aipaturiko lanak amaitzeko epea, eskaera egin zenetik, hiru hilabeteko epean zehazten da, hau da, 2008ko apirilaren 30a, asteazkena.

10 laneguneko epean, 250.000 €ko banku-abala aurkeztu beharko da.

Sarrerako iraganbidearen irekierari dagokionez, Udal Zerbitzu Teknikoaren aurrean birplanteatu beharko da, dokumentazio digitalizatua eta lanen amaierako dokumentazioa aurkeztuko direlarik.

Nolanahi ere, Batzordeak erabakiko du, udal interesentzako egokitzak ematen duenaren arabera.

ZUMAIA, 2008KO URTARRILAREN 28A.-LUCIANO PAGAEGI BILBAO, ARKITEKTOA.

Aldeko botuak: 5 (3 ANV , 1 EA eta 1 ARALAR)

Aurkako botuak : 0

Abstentzioak: 2 abstentzioa (EAJ)

ERABAKI DA:

1.-Altuna y Uria S.A-k luzaturiko eskaera onartzea Udal Zerbitzu Teknikoen txostenaren arabera (AU 06) Zelaia-Konbentua Hirigintz

*Edificación: Puertas interiores.
Zócalos y parquellita.
Mecanismos selectivos y otros.
Barandillas escaleras.
Aparatos sanitarios y otros.
Pintura interior..... 12.500

€vivienda en proporción a los precios estimados en el proyecto técnico presentado. Dado que son 20 las viviendas de V.P.O., el montante garante de la terminación de las obras que permitan otorgar la licencia de primera ocupación en condiciones de seguridad, salubridad e higiene y ornato es de 20 viv x 12.500 €viv = 250.000 €

3.-ONDORIOAK/CONCLUSIONES.

Estimar el escrito y formalizarlo como Anejo al Convenio Urbanístico.

El plazo estimado para la finalización de las obras citadas, se determinará en tres meses desde la solicitud, concretamente el 30 de abril, miércoles, de 2008.

Deberá presentar en el plazo de 10 días hábiles, aval bancario, con el importe citado de 250.000 €

Referente a la apertura de la galería de acceso, está deberá replantearse en presencia a los Servicios Técnicos Municipales, presentándose la debida documentación gráfica digitalizada y como documentación fin de obra.

No obstante, la Comisión estimará lo que crea más conveniente para los intereses municipales.

ZUMAIA, 28 DE ENERO DE 2008.-LUCIANO PAGAEGI BILBAO, ARQUITECTO.

Votos a favor: 5 (3 ANV, 1 EA y 1 Aralar)

Votos en contra: 0

Abstenciones: 2 (PNV)

SE ACUERDA:

1.- Aprobar de conformidad al informe de los servicios técnicos municipales

Hitzarmenaren akordio osagarri gisa.

2.- Alkate jaunari gaitasuna emanaz akordio hau udal interesak bermatuaz ejekutatatu dadin.

la solicitud cursada por Altuna y Uria S.A como complementario al Convenio Urbanístico en (A.U 06) Convento Zelaia.

2.- Facultando a la Alcaldía para hacer ejecutivo el presente acuerdo garantizando los intereses municipales.

4.- ESKARI- GALDERAK:

4.- RUEGOS Y PREGUNTAS:

ALKATE-LEHENDAKARIA: Eskari-Galderetara pasatuko gara. Nire despatxuko giltzarik ez dut ekarri, eta ezin izan dut ireki, baina nahiko nuke adierazi, DARALHI taldekoak joan direla Saharara eta Saharatik bertako alkatearen idatzia ekarri dutela, eskertuaz Zumaiatik ematen zaien laguntza. Behintzat jasota geratu dadila bertako herritarrek eskertu dutela hemendik bidali den laguntza eta besterik ez. Beraien hitzak behintzat jasoak geratu daitezela. Eta ez dakit gainontzekoek zerbait baduzuen esatekorik.

M. EUGENIA ARRIZABALAGA ANDREA: Bost minututan besterik ez bada, adierazi nahi nuke, etorri aurretik orain dela hilabeteko akta irakurtzen jardun dugula eta atentzioa deitu digula. Bertan agertzen da behin eta berriz nola Alkateak errepikatzen zuen haurtzaindegiak Arrangoletan izango dituen prefabrikatuen kostoak, guk, aurreko aurrekontuetan Bidasoa kalean planteatzen genuena baino askoz ere merkeagoa izango zela; 140 mila €takoa izango zela.

Eta horrela izanik, eta jakinda 2007ko aurrekontuetan oraindik ere 140 mila € horiek badaudela, aurkeztu duzuen aurrekontu borradorean eman dituzuen esplikazio txikien arabera, ez dakigu zenbat euro, baino 80 mila € edo 100 mila €aurreikusten dituzuela datorren urterako...

Aurtengo aurrekontuetan haurtzaindegi horretarako aurrikusitako kostuak aparte utzita, agertu zenuten Martxorako matrikulazio kanpainarako izango zela haurtzaindegia prest, eta bihar otsailean sartzen gara, eta oraingoz behintzat ez dakigu ezer kontratazio pleguetaz, erosketetaz, kostuetaz aparte, eta nahiko nukeena da, baldin eta ahal baldin baduzue behintzat, galdetu kontua nola dagoen, zein epetan zabilzaten eta daukazuten informazioa jakin. Eskerrikasko.

ALKATE-LEHENDAKARIA: Bai, haurreskolarekin nahiko kezkatuta gabilta. Ez dakit kezkatuta, baina bai uste baina ere buruhauste gehiago ematen ari zaigulako esaten dut. Gai bat bestearen atzetik datorrelako eta bueno, beraien artean nahiko korapilatuta datozelako. Kuestioa da 140 mila €esan ziren baina itxura denez, teknikoek ez zuten aurreikusi suen aurkako normatiba berria eta horrek kuestioa da kostua igo egiten duela eta bueno beste gauza tekniko batzuk, 140tik 162 mila € tara igotzen dute. Baina gaur hain zuzen ere Gobernu Batzordean erabaki degu Pleguak ateratzea. Gaur onartu da prefabrikatuen suminstroaren esleipena kontratatzea.

M. EUGENIA ARRIZABALAGA OLAIZOLA ANDREA: Eta barkatu..., Gobernu Batzordera eraman aurretik zein batzorde informatzaileetan ikusi da hori?

ALKATE-LEHENDAKARIA: Hori ? Hezkuntzako Batzordean, Hirigintzan ere aipatu da, oker ez baldin banago.

M. EUGENIA ARRIZABALAGA OLAIZOLA: Plegu horiek ez dira pasa inolako batzordetik.

ALKATE-LEHENDAKARIA: Gobernu Batzordean behintzat aipatu da eta erabaki da.

M. EUGENIA ARRIZABALAGA OLAIZOLA ANDREA: Gobernu Batzordean, noski, eta... “transparentziaren” beste adibide bat?

ALKATE-LEHENDAKARIA: Hori da transparentziaren adibidea, bai. Hala eta guztiz ere, esan nahi dudana da Gobernuak erabaki duela, haurreskolaren moduloak lehiaketara atzeratzea. Hori zen beraz hartu zen erabakia. Egia da, 140 mila €esan zela bere garaian. eta arazo teknikoak direla eta esaten ari naizen bezala 160 eta pikora igo dela.

Beste alde batetik, Eusko Jaurlaritzak ere esan zigun onartzeko zeukala haurreskola eta orain dela, oker ez baldin banago, hamabost egun edo horrelako zerbait, hartu zuten erabakia Zumaian haurreskola berria sortzekoa, beraz, gu ere erabakiaren zain geunden. Eta gero, beste alde batetik, Eusko Jaurlaritzak esan digulako beraien matrikulazio epearen arabera, Martxorako ez baizik eta Aste Santuaren ondoren irekiko dela

haurreskola. Hori bai dela Eusko Jaurlaritzak jarritako zera bat, kondizio bat eta guztien arabera espero dugu, Aste Santu inguru horretarako egotea.

M. EUGENIA ARRIZABALAGA OLAIZOLA ANDREA: Ados. Galdera konkretu bat, 162 mila esaten duzunean, hori prefabrikatu moldatuen prezioa da ? Instalazioak aparte ? Beraz 162 mila prefabrikatuak badira, pentsatzen dut “ a grosso modo” guztia, zenbat? 262 mila?

ALKATE-LEHENDAKARIA: Baina hori aipatu genuen, bai, akta irakurri ezazu, hori aipatu genuen eta.

M. EUGENIA ARRIZABALAGA OLAIZOLA ANDREA: Aktan esaten du behin eta berriz 140 mila, 140 mila zuena, 200 milatan gurea, askoz merkeago.

ALKATE-LEHENDAKARIA:Ez, ez, ez, hori aipatu genuen, eta batzordean aipatu genuen, bai, bai, bai.

M. EUGENIA ARRIZABALAGA OLAIZOLA ANDREA: Hemen dago akta.

ALKATE-LEHENDAKARIA: Ba...Batzordeetan aipatu genuen.

M. EUGENIA ARRIZABALAGA OLAIZOLA ANDREA: Irakurri daiteke.

ALKATE-LEHENDAKARIA: Batzordeko akta irakurri nahi baldin baduzu.

M. EUGENIA ARRIZABALAGA OLAIZOLA ANDREA: Edozein modutara, batzordeetan aipatu ez duzuen da, baldintza pleguen nondik norakoa, eta ezer ere ez. Eta ez dut uste askotan gertatu denik hori Udaletxe honetan. Horixe bakarrik.

ANDONI ETXANIZ OSA JNA: Nik esan nahi dudana da, hori horrela gertatu baldin bada, baldintza plegu hori batzordeetatik pasatu gabe onartua badago, usten dut ez dugula gure lana ondo egin, eta onartu beharrekoa dela, lana gaizki egina dagoela.

Hori horrela egin behar zela, noski horrela egin behar zela, azkenean “el uno por el otro” ez dakit, “la casa sin barrer” geratu den.

Hirigintzatik behintzat ez zen pasa, ez dakit, hezkuntzatik edo beste leku batetik pasatu den, baina Gobernu Batzordera eraman aurretik, nondik pasatu dugun edo nondikan ez, hori pixkat, ez dakit, hemen gure esperientzia falta edo agian egon daiteke, eta guk aurrenengotik denak ondo egingo ditugula, no lo juramos, zergatik guk ere akatsak egiten ditugu eta hau aktas bat izan baldin bada, pasatu behar baldin bada pasatuko dugu eta berriz ere onartu behar baldin bada onartuko dugu.

IDAZKARIA: Gobernu Batzordera joaten diren gaiak ez dago diktaminatu beharrik. Beste gauza bat da, ohituraz M. Eugeniak, esaten duen bezala, batzorde informatiboetan beti tratatu direla gai horiek. Zumaiako Politikaren jardueran horrela izan da, baina Gobernu Batzordera dihoazten gaiak, legez ez dago diktaminatu beharrik, diktaminatzen direnak Plenoara joaten direnak dira.

M. EUGENIA ARRIZABALAGA OLAIZOLA ANDREA : Behin eta berriz esan dugu, Zumaiako Udaletxeko Batzorde Informatiboetan pasatzen diren gaien % 95ak ez luketela batzordetik pasatu beharrik. Pasatu beharko lukete bakar-bakarrikan Plenora ekartzen diren diktamen bakanak, baina akusatu gaituzue mila aldiz transparentzi ezaz, eta horrelako kontu guztietaz eta orain aurrengo aukeran, ba... egiten duzuen da.... egin duzuen.

ANDONI ETXANIZ OSA JNA: Bai, akats bat rekonozitu, agian rekonozitu beharrik ez zegoen akats bat, agian akatsik ez dagoelako. Nahiko nuke jakin, zenbait aldiz rekonozitu diren Gobernutik, herri honetan akatsak eta egin diren ere, horren argi ez daukat, baina rekonozitu behar baldin badira guri behintzat ez zaizkigu eraztunak eroriko.

Dena den aurreko Plenoko aktari so eginaz, baita ere ikusten da edo irakurri genezake zuen hitzetan behintzat, lehen egin behar zen haurtzaindegiaeren frenteko kalea guztiz urbanizatzea edo aurreikusia zeneukatela eta hori ere Hirigintza Batzordean edo nonbaiten tratatua zegoela. Nik dakidala behintzat ez zen inon tratatu gai hori horrela, eta nik dakidana behintzat

200 mila € horik ere, zergatik ziren 200 mila € ez daukat oso argi, zer dela eta, 200 mila €?

M. EUGENIA ARRIZABALAGA OLAIZOLA ANDREA: 200 mila € ziren, arkitektoak han dagoen lokalaren metroak kontutan hartuta, eta egina zeukan aurre proiektuaren arabera, egiten zuen aurrekontuaren estimazio bat, horixe zen.

Eta oraintxen aipatzen duzun kalearen egokitzapena, ez dakit tratatu zen, komentatuko zen akaso, baina ez gai bezala, desde luego, obra hori egiteko diruak ez zeuden aurrekontuetan ikusita eta izatekotan ere, asmo politiko bat zen.

Geure alderdi politikoak gainera bere programan, hauteskundeetan, beste gauza askoren artean, adierazitakoa baina ez zen izan, eta erabaki horrek ez zuen inolako isladarik izan aurrekontuetan eta ez beste inon.

ANDONI ETXANIZ OSA JNA: Dena den orain esan berri duzunez zifra kantitate hori atera da, hemengo teknikariak eginiko aurreproiektu bat dela medio. Aurreproiektu hori eskatu dut eta ez dago inondik inora. Ez dago aurreproiekturik, ez dute aurreproiekturik egin.

M. EUGENIA ARRIZABALAGA OLAIZOLA ANDREA: Barkatu, baina maiatzean izan genuen bilera bat Hezkuntzako arduradunekin eta planoak zeuden, eta planoak zeuden, dibujatuta, eta ez dut esango xehetasun guztiakin, baina gelak non zihoazten, almagazak non, eta komunak eta abar guztiak.

ANDONI ETXANIZ OSA JNA: Plano bat marrazten hasi zen eta ez zuen bukatu, plano bat bukatzeko dauka. Hori da egina dagoen lana edo hori da behintzat niri esan didatena egina dagoela. Eskatu nuen aurreproiektua nahi nuelako esku artean izan eta aurreproiekturik ez dago egina dagoena da bukatu gabeko plano bat.

M. EUGENIA ARRIZABALAGA OLAIZOLA ANDREA: Bale, bale.

ANDONI ETXANIZ OSA JNA: Bai, eskatuko dugu eta baldin badago ekarriko dugu. Bai egia da aurreproiektua dago eta aurreproiektu honen baitan 200 mila € ko kostua izango dela.

M. EUGENIA ARRIZABALAGA OLAIZOLA ANDREA: Barkatu zuk galdetu egiten diguzu zer dela eta 200 mila. 200 mila € horiek izan ziren horrela egindako estimazio bat eta gainera 200 mila jarri zirenean ez zegoen ezta orain aipatzen duzun plano hori ere egina, noski.

Ze... oraintxe esku artean daukagun 2008ko aurrekontuaren borradorean agertzen diren proiektu eta partida guztien presupuestoak presupuestatzeko behar baldin badituzue proiektuak eginak eta ez dakit nondiknorako guztiak..., konturatuko zarete, edo konturatuko zintzen honezkero, ezinezkoa dela, o sea, ez dela horrela funtzionatzen, ez hemen eta ez inon, ez orain eta ez lehen.

ANDONI ETXANIZ OSA JNA: Hala ere galdetu dizudanean, nondikan 200 mila € erantzuna izan da aurreproiektutik, hala ez ?

M. EUGENIA ARRIZABALAGA OLAIZOLA ANDREA: Nik ez dut kontrolatzen, proiektua eta aurreproiektua arkitekoko batek zeri deitzen dion. Ez dakit..., borradore bat nahi baldin baduzu, aurreproiektuaren borradore bat. Eta horretan utzi dezagun, bale?

JOSEBA JOSU AZPIAZU AZKARRAGA JNA: Nik gauza bat bakarrik. Ni harrিতa nengoen, Hazienda batzorde batean, gai hau plenora ekarri zenean orain dela hilabete, abenduan, Manuk esan zuelako aurrekontu hori dela eta ez dela proiektu bat zegoela. Hitzegin nuen Andonirekin, eta Andonik esan zidan ez proiektu eta ez aurreproiektu, plano bat eta gainera bukatu gabe zegoela. Hori akklaratu nahi nuen. Esan du Andonik, baina bueno, ez dagoela proiekturik. Gainera badirudi 200 mila € horiei gehitu behar zitzaizela urbanizazio kostoa osoa eta horrek ekarriko lukeen trafiko arazoa noski. Ez dakit, nondik joango ziren kotxeak baina bueno.

M. EUGENIA ARRIZABALAGA OLAIZOLA ANDREA: Orain dela hilabete ere esan nuen, eta daukazuen abantaila da inork ez duela sekula haurtzaindegi hori egina ikusiko, eta inork orduan ezingo duela alderatu zuek Arrangoletako plazan jarriko dituzuen prefabrikatuekin. Beraz, hori beti zuen alde jokatzeko duen abantaila izango da.

JOSEBA JOSU AZPIAZU AZKARRAGA JNA: Esan nahi dut, esan zitzaizgun proiektua ez dagoela, hori ere ez dugu ikusiko, proiektua egongo balitz ikusiko genuke, baina ez dago.

ALKATE-LEHENDAKARIA: Zer edo zer gehiago? Eskerrikasko.

Eta eztabaidatzeko beste No habiendo más temas que tratar,
gairik ez dagoenez Alkate- el Alcalde-Presidente da por
Lehendakariak bilera amaitutzat finalizada la sesión cuando son las
ematen du arratsaldeko zortzirik veinte horas, y yo la Secretaria doy
direnean eta nik Idazkariak fede fe.
ematen dut.

ALKATEAREN O.E

IDAZKARIAK